



Infinitua ihi batean

Irene Vallejo

Itzulpena: Fernando Rey

Saio eta Testigantza, 245

978-84-9172-252-6

2021. urtea - 462 or. - 17x24 cm

24,90 €

Liburuen asmakuntza Antzinaroko munduan

Liburuen historiari buruzko liburua da hau. Hitzek espazioan eta denboran zehar bidaiatu zezaten asmatu genuen tresna liluragarriaren bizitzan barnako ibilbidea. Haien fabrikazioaren historia, ia hogeita hamar mendean egin diren proba eta diseinu guztiena. Mota askotako liburuak sortu baitira: kez, harriz, buztinez, ihi edo lezkaz, zetaz, larruz, zuhaitzez eginak, eta azkenak, plastikoz eta argiz eginak.

Gainera, bidaia-liburua ere bada. Alexandroren gudu-zelaietara joateko, Vesuvioren mendi mazelako Papiroen Villara joateko, edo Kleopatraren jauregietara edo Hipatiaren hilketaren gertalekura, ezagututako lehenbiziko liburutegietara eta eskuizkribuak kopiatzeko lantegietara, kodex debekatuak suntsitu zituzten suetara, gulagera, Sarajevoko liburutegira eta Oxfordeko lur azpiko 2000. urteko labirintora. Liburu honek, bestalde, klasikoak mundu garaikidearekin lotzen ditu, baita gaur egungo eztabaidagaiekin ere: Aristofanes eta umoristen kontrako epaiketak, Safo eta emakumeen literatur ahotsa, Tito Livio eta fanen fenomenoak, Seneka eta egia ondokoa...

Baina, oroz gain, denboran zehar liburuak sortu eta babestu dituzten milaka gizon-emakumeren abentura kolektibo xarmagarria da: istorio eta ipuinen kontalariak, eskribak, irudigileak, itzultzaileak, saltzaile ibiltariak, maisu-maistrak, jakintsuak, espioiak, errebeldeak, mojak, esklaboak, abenturazaleak... Irakurleak, mendialdekoak zein orroka ari den itsasoaren ondokoak, energiaren bilgune diren hiriburuetakoa zein kaos garaietan babesleku diren bazter-parajeetakoa. Jende xehea, xumea, historiak erregistratu ez dituen hainbeste gizon-emakume. Liburuen salbatzaileak, horiek baitira saiakera honen egiazko protagonistak.



Irene Vallejo
(Zaragoza, 1979)

Filologia Klasikoa ikasi zuen, eta doktoretza europarra lortu zuen Zaragozako eta Florentziako unibertsitateetan. Txikitatik sentitu zuen Greziako eta Erromako elezaharren eta Mediterraneoan mundu argitsuaren xarma. Gaur egun, mundu klasikoaren zabalkuntza-lanean ari da buru-belarri, hitzaldiak emanez eta Heraldo de Aragón eta El País egunkarietan astero argitaratzen duen zutabearen bitartez. Bere literatur lanen artean hauek dira nabarmenezkoak: *La luz sepultada* (2011) eta *El silbido del arquero* (2015) eleberriak, *Alguien habló de nosotros* (2017) kazetaritzako antologia eta *El inventor de viajes* (2014) eta *La leyenda de las mareas mansas* (2015) haurrentzako liburuak. *El infinito en un junco* (2019) argitaratu eta berehala, ezin sinetsizko moduan bereganatu eta liluratu ditu irakurleak.

